

DOMINIQUE PEILLEN. *Gauaz ibiltzen dana...* «Kuliska Sorta». Itxaropena Argitaldaria. Zarautz, 1967.

Bazen ordua 1964'an Domingo Agirre saria irabazi zuen nobela hau ikusteko. Nobeletan, gaiñera, oso hurri gabilta.

Polizi nobela da. Mugako prolemak eta heriotze bat ditu gai nagusizat. Aisa irakurtzen da. Paris'en jaio zen ziberotarren seme honek gipuzkeraz eman bai digu bere liburu hau. Labur eta bizi idatzia da; beharbada laburregi ere bai. Bertan ez da aspertzetik, baiña bai bein baiño geiagotan kostako zaigu gaiaren aria jarraitzea, bere kontraera hain laburkia baita.

Ikusten da Peillen'ek baduela dohainik aski nobelagintzarako. Ta euskal literatura horren premia handian dugu.

J. S. M.



A. EMILIANO BARANDIARAN. *Euskal-musikalari bikaiñak*. «Kuliska Sorta». Itxaropena Argitaldaria. Zarautz, 1967.

Liburu hau argitara eman eta egun gutxira hil zitzaigun bere egi-ilea. Eta ongi iduritzen zaigu liburuaren berriekin batean egillearena ere ematea.

Aita Emiliano karmeldarrak Julian Barandiaran zuen bere bataio izena. Gipuzkoako Eskeriatzan jaioa zan 1904-ko epaillaren 9-an. Markiñan hil da 1967-ko abenduaren 13-an. 1921-etik asi ta «Euskal Esnalea»n ikusi ziran bere lehen euskerazko idazkiak.

Aita Emilianok musika zuen bere dohainetarik bereziena. Karmeldar etxeetan ikasitakoez gaiñera Montserrat, El Escorial, Madril eta Gazteiz'en egin zituen bere ikastaroak. Hortik zetorkion Maestro de Canto Gregoriano titulua. Baita ere erderazko liburu bat ere badu *Psallite Sapienter* (Compendio de Música) delakoa, 1956-an argitaratua. Eta, euskeraz, *Eresi Ikasbidea* du, Euskaltzaindiari emana, oraindik argitaratzeke dagona.

Musika-zale izateak eraman zuen lan hau osotzera. Denok ez dakit, baiña geienok zatika argitaratuak zituan «Karmel» aldizkarian, ta orain hemen ditugu zerbait obetuak, bere biografi lan haietatik hoberenak autaturik, Eslaba, Goikoetxea, Azkue, Ravel, Arregi, Otaño, A. Donosti, Guridi, Usandizaga, Iruarizaga, Sarasate eta Gaya-